

EUSKAL HERRIKO POLIZIARI BURUZKO LEGEAREN BOSGARREN ALDAKETARAKO LEGE-AURREPROIEKTUAREN TXOSTEN JURIDIKOA

Segurtasun Saileko Araubide Juridikoaren, Zerbitzuen eta Hauteskunde Prozesuen Zuzendaritzak txosten hau egin du, indarrean dagoen Dekretuak, Segurtasun Sailaren egitura organikoari eta funtzionalari buruzkoak, xedatutakoari eta abenduaren 22ko 8/2003 Legeak, xedapen orokorrak egiteko prozedurarenak, xedatutakoari jarraikiz.

1.- AURREKARIAK

Herrizaingoko sailburuak agindu zuen Euskal Herriko Poliziari buruzko Legea bosgarrenez aldatzeko lege-proiektu bat egiteko, izapidetzeko eta Gobernu Kontseiluari aurkezteko prozedurari hasiera ematea, Eusko Jaurlaritzak oraingo legegintzaldirako egindako legegintza-egutegian aurreikusitakoaren arabera.

Aztertutako lege-proiektuaren helburua da EHPL partzialki aldatzea, EAEko herri-administrazioen mendeko polizia-kidegoetako langileen berariazko araubidean eragina duten aldaketa zehatz batzuk sartzeko. Halaber, Gobernu gaitu nahi du, Euskal Herriko Poliziari buruzko Legearen testu bategina onetsi dezan.

Euskal Herriko Poliziaren uztailaren 17ko 4/1992 Legeak (aurrerantzean EHPL) aldaketa asko izan ditu Ertzaintzako funtzionarioen ordainsarien araubidean, Ertzaintzako langileen ordezkartzean edo funtzionarioen sailkapen-taldeetan. Euskadiko segurtasun publikoaren sistema arautzeko ekainaren 28ko 15/2012 Legeak bosgarren aldiz aldatu du EHPL, eta erregulatu gabe utzi ditu segurtasun publiko osoan eragina zuten alderdiak, esate baterako, Poliziaren eta Larrialdietako Zerbitzuen Euskal Ikastegiaren araubidea edota poliziaren azpi-sistemari edo herritarren segurtasunari buruzko beste zenbait alderdi; udaltzaingoak koordinatzeko eskumenari edo polizia-lankidetzarako mekanismoei buruzkoak, adibidez. Izan ere, antolaketa edo harreman aldetik komeni zen alderdi horiek Euskadiko segurtasun publikoaren sistema arautzeko legean jasotzea. Horrenbestez, Euskal Herriko Polizia-kidegoetako langileen estatutu-araubide zehatzarekin loturiko edukiak jasotzen ditu funtsean Euskal Herriko Poliziari buruzko Legeak

Lege honek EHPL bosgarren aldiz aldatu nahi du, hainbat arrazoirengatik: Estatuko edo autonomia-erkidegoko beste lege batzuen eragina; Indarrean dagoen legedia eta interpretatzen duten erabaki judizialak aplikatzerakoan pilotutako esperientzia; Ertzaintza modernizatzekeo proiektuen testuingurua; azken urteotan Eudelekin (Euskadiko Udalen Elkarte) sinatutako lankidetzahitzarmeneko lantaldeetan burututako lanen emaitza, etab.

2.- EDUKIA

1. "II. kapitulua.- Poliziaren jarduna kontrolatzeko mekanismoak. (6-14. artikulua)
2. Ertzaintzaren Kontseilua: 17. artikuluko d) letra aldatzen da (jarduera diziplina-araubidearen aplikazioari dagokionez)
3. Ertzaintzaren Kontseilua: 17. artikuluko d) letra (jarduera ohorezko aintzatespenen araubidearen aplikazioari dagokionez)
4. Udaltzaingoa: 4. lerrokada berria eranstean zaio 27. artikuluari (toki-agintariak babesteko lanak udal-mugartetik kanpo)
5. Kode deontologikoa: 2. lerrokada berria eranstean zaio 28. artikuluari (poliziaren kode etiko europarra barneratzea)
6. Kode deontologikoa: (30. artikuluko 3. lerrokada kentzen da) Bere edukia 30 bis artikuluan jarriko da.
7. Kode deontologikoa: 30 bis artikulua berria (herritarrekiko harremanak gizarte elebidun eta anitzean)
8. Prestakuntza: 40. artikulua: titulu akademikoen baliokidetasunak eskatzea eta ikasgaiak baliozkotzea
9. Espezialitateak: 43. artikulua.
10. Hautaketa: deialdiak. Ikasgai-zerrendari zehar-esana.
11. Deialdiko oinarriekin lotura: 5. lerrokada berria eranstean zaio 47. artikuluari.
12. Gizon eta emakumeen oreka sustatzeko neurriak: 47 BIS artikulua berria.
13. Hautaketa eta sarrera: Hautaketa-organoak: 48. artikulua
14. Hautaketa eta sarrera: Akademiaren esku uzten ditu Udaltzaingoaren hautaketa-prozesuak. Deialdiak batera egiteko aukera: 2. lerrokada eranstean zaio 50. artikuluari.
15. Hautaketa eta sarrera: eskakizunak. 55 bis artikulua berria
16. Hautaketa eta sarrera: Superintendenteei egiten zaien aipamena kentzea: 56. artikuluko 4. lerrokada.
17. Barne-sustapena: Mailaz igotzeko zerbitzu-urteak gutxitzea.
18. Barne-sustapena: laneko bizitza eta familia-bizitza uztartzea. Seme-alabak edo senideak zaintzeko eszedentzia eta genero-indarkeriagatik hartutako eszedentzia zerbitzu aktiboarekin parekatzen da. 59. artikuluen 3. lerrokada.
19. Barne-sustapena: laneko bizitza eta familia-bizitza uztartzea. Benetako zerbitzutzat hartzea. 59. artikuluen 4. lerrokada.
20. Funtzionarioaren izaera galtzea: funtzionarioen araubide orokorrera bidaltze-oharra; 61. artikuluen 1. lerrokada.
21. Funtzionarioaren izaera galtzea: erretiroa: funtzionarioen araubide orokorrera bidaltze-oharra. 62. artikulua
22. Lanpostuak betetzea: maila pertsonalaren aipamena kendu eta lanbide-garapenaren mailagatik ordezkotzea. 65. artikuluen 2. lerrokada.
23. Espezialitatedun lanpostuak betetzea. 65 bis artikulua berria.
24. Bigarren jarduerarako ezarrita dauden lanpostuak betetzea: lehentasuna (ezintasun iraunkor osoa dutenen lehentasunari eginiko aipamena kentzen da, erretiratuta baitaude). 66. artikulua
25. Bigarren jarduerarako ezarrita dauden lanpostuak betetzea: zerbitzu aktiboan lekualdatutako funtzionarioa enkaitzeko aurreikuspena kentzen da eta bigarren jarduerarako funtzionarioa jarri: Kendu egiten da 70. artikuluen 5. lerrokada.
26. Lanpostuak betetzea: lanpostua aldi baterako betetzea: maila pertsonalari egindako aipamena kentzen da. 71. artikuluen 3. lerrokada.
27. II bis kapitulua.- Lanbide-karrera. (73 bis eta ter artikulua)

28. Ordainsarien araubidea: Espezialitatedun araubide orokorrera bidaltze-oharra. 74. artikulua 1. lerrokada:
29. Ordainsarien araubidea: superintendentari egiten zaion aipamena kentzen da: 74. artikulua 1. lerrokada a) letra.
- 30.- Ordainsarien araubidea: Lanbide-karreraren osagarria. a) bis letra berria eransten zaio 74. artikulua 1. lerrokadari.
31. Bateriaezintasunak: euskal administrazioetako funtzionarioen araubideari bidaltze-oharra: 78. artikulua 2. lerrokada.
32. "V. kapituluak.- Osasuna eta Gizarte-babesa. (79. eta 79 bis artikulua)
33. V. Bis kapituluak.- Kondekorazioak eta aintzatespenak.
34. Administrazio-egoerak: espezialitatedun funtzionarioen araubide orokorrari bidaltze-oharra. 81. artikulua
35. 84. artikulua 5. lerrokada berria behin-behinean gabetzen da.
36. 84. artikulua 6. lerrokada berria behin-behinean gabetzen da.
37. Adinagatik baldintzatutako zerbitzu aktiboa: 85. artikulua
38. Bigarren jardura: 86. artikulua
38. Adinaren edo behin-behinean destinorik gabe dagoen bigarren jardueraren arabeko zerbitzua. Bermeak: 87. artikulua
40. Destinorik gabeko bigarren jardura: Kendu egiten da 88. artikulua.
41. Diziplina-araubidea: zehapenak: 92. artikulua 2. lerrokada b), d) , g), k) eta l) letrak aldatzen dira
42. Diziplina-araubidea: Arau-haustea: bi letra berri —I bis) eta I ter)— eransten zaizkio 92. artikulua 2. lerrokadari.
43. Diziplina-araubidea: zehapenak: 93. artikulua
44. Diziplina-araubidea: faltak eta zehapenak neurtzeko irizpideak: 94. artikulua
45. Diziplina-araubidea: espedientepean dagoen pertsonaren eskubideak 95. artikulua 2 bis lerrokada berria eransten zaio.
46. Diziplina-araubidea: espedientepean dagoen pertsonaren eskubideak 95. artikulua 2 ter lerrokada berria eransten zaio.
47. Iraungipena: 95. artikulua 5. lerrokada.
48. Falten preskripzioa: 97. artikulua 2. lerrokada.
49. Zehapenen preskripzioa: 97. artikulua 3. lerrokada
50. Zehapenak betearaztea: 97 bis artikulua berria,
51. Zehapenak betearaztea: 97.ter artikulua berria,
52. Ertzaintzaren hauteskundeak: Hautesleen izaera: bitartekoei egiten zaion aipamena kentzen da: 99. artikulua 3. lerrokada.
53. Ertzaintzako eskalak eta kategoriak: superintendenteei egiten zaion aipamena kentzen da. 105. artikulua
54. Ertzaintza: "hirugarren atala - polizia judiziala". Doitu egiten da eguneratzeko
55. Aguazilak: 117. artikulua
56. Udaltzaingoko eskalak eta kategoriak: 118. artikulua
57. Udaltzaingoaren eskalak eta kategoriak. Burutzak. 119. artikulua
58. Aldi baterako beharrak betetzeko mekanismoak: udalerrien arteko lankidetzak, Ertzaintzaren laguntza. Bitarteko funtzionarioen prestakuntza. 120. artikulua
59. " III. kapituluak- Mugikortasun-agentak",
60. Bigarren jardura udaltzaingoan: Hogeigarren xedapen gehigarri berria
61. Trukatzea udaltzaingoan: hogeigarren xedapen gehigarri berria
62. Erretirodun funtzionarioak: Hogeita bigarren xedapen gehigarri berria

63. Zerbitzu aktiboan jazotako gertaerengatik epaiketara joatea, hogeita hirugarren xedapen gehigarri berria

64. Hauek guztiak kentzen dira: hirugarren xedapen gehigarria, zortzigarrena, hamabigarrenaren lehenengo eta hirugarren atala, eta hamaseigarrena, bai eta xedapen iragankorretatik, lehena, bigarrena, hirugarrena, laugarrena, bosgarrena, zazpigarrena, zortzigarrena, bederatzigarrena, hamargarrena, hamaikagarrena eta hamabigarrena ere.

65. Ertzaintzaren aldizkariari aipamena

66. Aipamenak "Euskal Herriko poliziaren akademiari" eta "'Herrizaingo Sailari" edo bere organoei.

Lehen xedapen iragankorra.- Martxan dauden hautaketa-prozesuak eta lanpostuak betetzeko prozesuak.

Bigarren xedapen iragankorra.- Kondekorazio-erregimena eta zerbitzu-ekintza.

Hirugarren xedapen iragankorra.- Diziplina-espedienteak.

Laugarren xedapen iragankorra.- superintendentearen kategoria desagertuko da.

Bosgarren xedapen gehigarria.- Udaltzaingoko funtzionarioak goi-mailako eskalan sartzea.

Seigarren xedapen gehigarria.- Udaltzaingoaren burutza-lanpostuak egokitzea.

Zazpigarren xedapen iragankorra.- Aguazilak.

Zortzigarren xedapen iragankorra.- Aguazilak udaltzaingoan sartzea.

Azken xedapenetatik lehenengoa. - Testu bategina egiteko gaitzea

Bigarren azken xedapena.- Indarrean jartzea

2.- PROIEKTUAREN EDUKIARI BURUZKO OHARPENAK

2.1.- ESKUMENA

a) Eskumen-gaitasuna

Aurreproiektuak lantzen duen gaia arautzeari dagokionez, ez dago autonomia-erkidegoaren eskumenari buruzko zalantzarik: EHAEn 17. artikulua eskumena esleitzen dio "Autonomia Erkidegoko poliziaren araubidea" antolatzeke, horrenbestez eguneratzen da foru-araubidea, Konstituzioaren xedapen gehigarrietako lehenengoan aurreikusi bezala. Gaitasuna aitortzen duen titulu horri erantsi behar zaio funtzionario publikoen araubidearen garapenari buruzko titulua, EHAEn 10. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Gogoeta horietan sakontzeko premiarik ez dago, lege horren laugarren aldaketa baita eta jurisprudenzia ugari baitago, baita Aholku Batzorde Juridikoaren doktrina oparoa ere.

Horretarako, nahikoa dugu Aholku Batzorde Juridikoaren irizpen batzuk adierazten duten bidea jarraitzearekin, EHPLren urreko erreformei buruzko 120/2007 edo 67/200 irizpenek esandakoa, esaterako.

EHAEn 17. artikuluan xedatutakoa garatzeko onetsi zuen Eusko Legebiltzarrak EHPL, Euskal Herriko polizien estatutu-araubidea arautzen

duena, Autonomia Erkidegoko funtzionarioen araubide orokorretik ahalik eta hurbilen, beharrezko berezitasunei kalterik gabe (Zioen Adierazpena), eta azken xedapenetako lehenengoan honela dio: “Ertzaintzako eta Udaltzaingoko funtzionarioak, bere estatutu araubideari dagokionean, Euskal Funtzio Publikoaren legedi orokorrean ezarritakoaren arabera araupetuko dira osagarri moduan”.

Gogoan izan behar da berriazko estatutua –funtzionarioen araubide orokorretik berezia– eratzeko premia datorrela polizien eginkizunaren ezaugarri berezien ondorioz; izan ere, Konstituzioaren 104.1 artikulua adierazten du haien xedea dela “eskubide eta askatasunen egikaritza askea babestea eta herritarren segurtasuna bermatzea”, eta, Konstituzioaren 104.2 artikulua agintzen du Lege Organiko batek zehaztu behar dituela Segurtasun Indar eta Kidegoen eginkizunak, jarduteko oinarrizko printzipioak, eta estatutuak.

Agindu hori bete du martxoaren 13ko 2/1986 Lege Organikoak, Segurtasun Indar eta Kidegoei buruzkoak (aurrerantzean SIKLO); hizpide dugun alorrean konstituzionaltasunaren blokea osatzen du. Gainera, kontuan hartu behar da azken xedapenetako lehenengoan bazterten duela Euskal Herriko Polizia Autonomoari aplikatzeko aukera, 5., 6., 7. eta 8. artikuluetan adierazitako arau orokorrak eta oinarrizkoak, jarduerari eta estatutuari buruzkoak, izan ezik.

Bistakoa da dagokigun auzian estatuak ez diola mugarik jartzen autonomia-erkidegoaren arautzeko gaitasunari, oinarrizko aurreikuspen orientatzailea salbu. Aurreikuspen horren arabera, kategoria bakoitzeko zerbitzuetako lanpostuak betetzeko, aintzat hartuko dira meritua, gaitasuna eta antzintasuna, dagokion araudian xedatutakoari jarraikiz (6.6 artikulua, SIKLO).

Bestalde, apirilaren 12ko 7/2007 Legeak, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuarenak, funtzionarioen estatutu-araubiderako oinarrizkoa denak, Konstituzioaren 149.1.18 artikulua babesean, bere eragin-eremutik kanpo uzten ditu Segurtasun Indar eta Kidegoetako kideak, eta adierazten du Lege horretan xedatutakoak aplikatuko zaizkiela soilik haien berriazko legediak hala xedatuz gero (4. artikulua).

Horrek guztiak esan nahi du autonomia-erkidegoko legeak zehatz ditzakeela Ertzaintza arautzeko estatutu bereziaren ezaugarriak, eta, zehazki, autonomia-erkidegoko poliziaren barne-egitura antola dezakeela, Estatuan gutxieneko berdintasuna bermatzeko ezarritako oinarrizko arauak edo arau erkideak jarraitzeko obligaziorik gabe.

Aukera-askatasun horrek, jakina, ez du esan nahi mugarik ez dagoenik; esate baterako, Konstituzioak aitortutako funtsezko eskubideetatik ondorioztatzen direnak, bereziki 14. artikuluko legearen aurreko berdintasuna, Konstituzioaren 23.2 artikulua aitortutako eskubidea zehazten duena, funtzio publikoan sartzeari dagokionez.

Bestalde, udaltzaingoetako funtzionarioen kasuan, erantzunak ñabartuagoa izan behar du, udaltzaingoak toki-araubideko elementu gisa duen garrantzia aintzat hartuta. Horrenbestez, ezin da baztertu Konstituzioaren 149.1.18.

artikuluari xedatutakoa eskumen-banaketa hori egiteko titulu izatea, EHAren 10.4 artikuluari dagokionez.

Apirilaren 12ko 7/2007 Legeak, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutua onesten duenak (EPOE), ez ditu polizia-funtzionarioak barne hartzen. Hala ere, 3.2 artikuluan aurreikusten du udaltzaingo-kidegoak ere estatutu horren arabera eta autonomia-erkidegoetako legediaren arabera arautzea, SIKLOn haientzat xedatutakoa salbu.

Horrenbestez, estatu-eskumena eremu horretan sartzen da, udaltzaingoen araubidearen oinarriak onesteko, Konstituzioaren 149.1.18 artikulua arabera, eta autonomia-erkidegoari dagokio oinarriak garatzea, EHAren 10.4 artikuluari jarraikiz.

Dena dela, esan behar da, lanpostuak hornitzearen eta mugikortasunaren kontuetan EPOEn adierazitako aurreikuspenek ondorioak izango dituztela soilik EPOE garatzeko emandako Funtzio Publikoaren legeak indarrean jarri ostean (azken xedapenetako 4.2).

Horrenbestez, ordura bitartean, tokiko araubidean jasotako oinarriak aplikatu behar dira [apirilaren 2ko 7/1985 Legeak, toki-araubidearen oinarriak arautzen dituenak (aurrerantzean TAOL), azken xedapenetako hirugarrenean agindutakoa; eta toki-araubidearen arloan indarrean diren xedapenen testu bateginak (aurrerantzean TATB), apirilaren 18ko 781/1986 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsiak, aldi baterako xedapenetako laugarrenaren bidez agindutakoa]. Oinarri horiek EHPLren bitartez garatu dira EAEn, eta lege hori aplikatu behar da udaltzaingo-kidegoetan (EHPLren 2.b artikulua).

b) Ekimenaren maila eta sustatzailearen gaitasuna:

Lege-maila izan behar du, polizia-kidegoetako langileen funtzionario-estatutuaren oinarrizko alderdiak arautu ahal izateko, eremu horretan lege-erreserba baitago. Konstituzioaren 103.3 artikuluan xedatutako lege-erreserbak autonomia-erkidegoko legegilea behartzen du, baita Konstituzioaren 23.2 artikulua ere, sarrera-baldintzak arautzean "legeek ezartzen dituzten" betekizunen arabera izan behar dutela adierazten baitu. Bereziki lege-mailako beste arau batzuetan partzialki araututako alderdiak badira (hala nola Euskal Herriko Poliziari buruzko Legea).

Eusko Jaurlaritzako jardura-eremuen banaketa kontuan hartuta, eta EHPLn bertan eta sail horren egitura organikoa zehazten duen dekretuan xedatutakoari erreparatuta, Segurtasun Sailak ekimenaren sustatzaile izateko gaitasuna du, zalantzarik gabe.

c) Ondorioa:

Aurreko kontsiderazioei erreparatuta, Euskal Autonomia Erkidegoak aztergai dugun arauketari ekiteko eskumena duela irizten dugu; batik bat kontuan hartzen badugu EHAren 17. artikuluan jasotako eskumen-titulua, "gizakien eta

ondasunen babeserako eta herri-bakea zaintzeko Autonomia Erkidegoko poliziaren araubidea" ezartzeko eskuduntza ematen duena, Konstituzioaren xedapen gehigarrietako lehenengoan aurreikusitako foru-araubidearen eguneratze-prozesuaren esparruan, eskuduntza ematen duten beste titulu batzuen kalterik gabe, hala nola EHAE beraren 10.2 artikulua eta, bereziki, 10.4 artikulua.

Arauketa horretarako muga, Ertzaintzari dagokionez, funtzio publiko guztian eragina duten printzipio orokorrak eta eskubide konstituzionalak dira; esate baterako berdintasunaren, merituen eta gaitasunaren printzipioak, eta SIKLOren 5., 6., 7. eta 8. artikuluetan adierazitako arau orokorrak. Horrenbestez, autonomia-erkidegoko araugileak aukera ugari ditu, EPOE ere ez baitu zuzenean aplikatu behar.

Bestelako kontua da autonomia-erkidegoko legegileak berak poliziako funtzionarioen estatutua beste funtzionarioen estatuarekin berdintzea erabakitzen badu, eta gai jakinetan zuzenean aplikatzea erabakitzen badu, esaterako administrazio-egoeretan, eskubide eta betebeharretan edo ordainsarrietan, edo oro har, horren ordez aplika daitekeela ezartzen badu.

Udaltzaingoetako funtzionarioen kasuan ere, EAEko legegileak aukera asko ditu bere esku; hala ere, kasu horretan EPOEren 3.2 artikulua adierazten du estatutu horretan adierazitakoari eta autonomia-erkidegoetako legedietan xedatutakoari jarraitu behar diotela.

2.2.- PROIEKTUAREN AZTERKETA

Eskumenen azterketa hori egin ostean, atera daitekeen ondorioa da proiektuak ez duela arazorik sortzen legeen eta Konstituzioaren aldetik, esparru juridikoan txertatzeari dagokionez.

Berrikuste juridikoa analitikoki egituratuko dugu, gaien arabera, aldaketen zerrendan ageri den ordena zehatz-mehatz jarraitu gabe; eta, aldi berean, memorietan erruz aztertutako planteamenduak ez errepikatzeko ahalegina egingo dugu.

2.2.1.- Kontuak emateko mekanismoak.

Kapitulu berri bat sartuko da, polizia-jardueraren kontuak emateko mekanismoak arautzeari buruzkoa, herritarren aurrean beren jardueren egokitasun eta eraginkortasunari buruz erantzuteko. Horrez gain, administrazio-jarduera osoarentzako lehendik dauden kontrol juridikzionalerako mekanismoak eta Legebiltzar kontrolerako mekanismoak hartu behar dira kontuan. Horien xedea da poliziek herritarrei ematen dieten zerbitzua hobetzea, polizia-zerbitzuaren estandarrak eraginkortasunez eta efikaziaz eta aurrez ezarrita dauden legeak eta prozedurak errespetatuz betetzen direla bermatzeko.

Kontuak emateko mekanismoak eta administrazio-gardentasunerako mekanismoak indartzeko, elkarrekiko erlazioa duten elementuak integratu behar dira, honako hauek, adibidez: zerbitzuen efikazia eta eraginkortasuna ikuskatu eta gainbegiratu; polizia-jardunbide egokia modu positiboan suspertzeko sistema indartu (ordainsariaren pizgarriak, hala nola, produkzio-osagarri jakinak, jardunaren ebaluazioarekin lotutako lanbide-karrerako osagarriak, aparteko haborokinak edo kondekorazio eta sarien sistema); barneko diziiplina-mekanismoak ezarri, eraginkorrak, zentzuzkoak, egokiak eta zuzenak diziiplina faltari buruzko kasu partikularrak ikertzeaz gain arrisku-alderdiak eta segurtasun-ereduak aztertuko dituztenak, prestakuntza, prozedurak edo laneko giroa hobetzeko orientabidea eskaintzeko eta herritar eta poliziaren arteko nahitaezko elkarrekintza indartzeko. Xede hori lortzeko kexen tratamendurako mekanismoak bermatuko dira, polizia-zerbitzuarekiko independenteak herritarrengan fidagarritasuna eragingo dutenak, kexak neutral eta modu ez korporatiboan landuz.

Segurtasun publikoa hobetzeko sistemaren bidez kexak jaso eta landuz, herritarrekiko erlazio-mekanismoak indartzeaz gain, aipatutako azken ildo estrategikoa sendotzeko, erakunde hibrido iraunkor bat sortu da, polizia-erakundearekiko autonomia funtzionala duena eta pertsona espezializatuek osatutakoa. Baina era berean, poliziako kide guztiak barne hartzen ditu, herritarrengan konfiantza sortzeko, baina polizien kolektiboan ere gaitzespenik eragin ez dezan.

Batzordeak eginkizun hauek izango ditu: poliziaren esku-hartzeak zuzenean edo zeharka pertsona baten heriotza edo lesio larriak eragiten lagundu ahal izan duenean, istilu horiek ofizioz ikertzea; poliziaren beste edozein jokabide edo jardun ere ikertzea Saileko titularrak eskatuta, baldin eta haiei buruz herritarren konfiantzan izandako inpaktuaz kezka larria adierazten duten kexak jaso badira; eta, orobat, berrikustea nola funtzionatzen duen zerbitzu polizialari buruzko kexen tratamenduak.

Batzorde horren erregulazioak batzordekideen neutraltasuna eta independentzia babesten ditu, kideok kargugabetzeko kausak era tasatuan arautuz, ez daitezzen zerbitzutik bereizi arbitrarioki, ikerketa bat gauzatzen ari denean. Batzordeari laguntzeko obligazioa jasotzen da, bi aukera emanez: funtzionario publikoek laguntzea, zerbitzu-eginkizunetan, batzordea ikerketak egiten ari denean; edo Ertzaintzaren Barne Arazoetarako Zerbitzuari eskatzea berak egin dezala ikerketa, eta Batzordeak zuzenean gainbegiratzea. Gainera, batzordeak bere jardueraren gaineko kontuak Eusko Legebiltzarrari zuzenean ematea ere aurreikusten da.

Ildo horretan, Poliziaren Etikaren Kode Europarraren edukiaren aplikagarritasunari berariazko aipamena egiten zaio. Kode horrek polizia-funtzionarioen jokabide-jarraibideak ez ezik, polizia-agintarienak ere finkatzen baititu, ez bakarrik herritarrekiko harremanetan, baita zerbitzuen barruko antolakundeari dagokionez ere, eta, horretarako, jarraibideak ezartzen ditu, kontuak emateari buruzko atalean aztertutakoari jarraituz.

2.2.2.- Hautaketa eta sarrera:

Aldaketa batzuek sarrera-prozedura modernizatzeko joera dute, EPOEn enplegatu publiko guztietara hedatutako arauak txertatzearen bidez; esate baterako hautaketa-organoen osaera, eta haien inpartzialtasuna, profesionaltasuna eta berezitasuna. Hautaketa-organo horien osaerari dagokionez, emakumeen eta gizonen ordezkapen orekatuak behar dira, emakumeen eta gizonen berdintasunerako legearen ondorioz.

EPOEn aurreikusitako beste arau batzuk hartzen dira; esate baterako, Euskal Herriko Polizia eta Larrialdi Ikastegia izendatzea Ertzaintzako hautaketa-prozesuetan espezializatutako hautaketa-organo iraunkorra izateko, baita tokiko administrazioek eskatutako prozesuetan ere. Gai horri heltzen dio, halaber, EHPLren 50.3 artikulua aldaketak.

Zalantzarik gabe, sarrerari buruzko berrikuntza nagusienak dira sarrera-baldintzen arautzea eta emakumeen aldeko ekintza positiborako neurriak.

Sartzeko baldintzak:

Orain arte, polizia-funtzionarioa izateko baldintzak Euskal Herriko Poliziaren hautaketarako eta prestakuntzarako araudian jasota zeuden, eta urte gutxi batzuk igaro orduko aldatzen zen, sartzeko gutxieneko garaierari eta gehieneko adinari dagokienez. Kontua da EPOEk –udaltzaingoei zuzenean aplikatu beharrekoa, eta Ertzaintzaren kasuan gehigarria dena, aipamenak direla-eta– xedatzen duela sartzeko gehieneko adina lege formal baten bidez finkatu behar dela. Horrenbestez justifikatzen da sarrera-baldintzak EHPLn arautzea. Bestalde, baldintza horiek bat datoz gaur egun eska daitezkeenekin.

Agente-kategorian polizia-kidegora sartzeko gehieneko adinari buruzko baldintzak eztabaida judizialak sortu ditu, sarrera txanda libre bidez burutzen denean. Orain arte, EAEko Justizia Auzitegi Nagusiak emandako erabaki batzuk baldintza hori eskatzea bermatzen dute, arrazoizko eta zentzuzkotzat hartzen baitute, antolamendu-arloko lehentasunezko interes publikoarengatik. Dena den, arrazoi horrek ez duela oinarririk uste dute udaltzaingoaren bitarteko funtzionarioen izendapenen kasuan. Polizian sartzeko gehieneko adina ezartzearen legezkotasuna zalantzan jartzen duten Espainiako eta Europako jurisprudentzia badago, baztertzaila dela uste dutelako ez baita arrazoi sendo eta zentzuzkoan oinarritzen. Hala ere, horrelakoetan, ematen zen arrazoa polizia-lanaren eskakizun fisiko hutsa zen, eta ez antolamendu-eskakizun publikoak.

Ertzaintzan gehieneko adina ezartzeko arrazoi gehigarri baldintzatzaileak daude, kidego osoaren diseinuarekin eta lanbide-karrerarekin zerikusia dutenak. Izan ere, kidegora beheko kategoriatik sartzeko diseinatuta dago, eta lanbide-karrera, aldiz lanbide-bizi osoan zehar goreneko lanpostuetara heldu ahal izateko pentsatuta dago. Gainera, lanbide-bizitza osoan indartutako kotizazio-ordainketen bidez 59 edo 60 urterekin erretiro aurreratua hartzeko sistema kalkulu aktuarialean oinarritzen da, 35 urte bete aurretik sartzen den funtzionarioaren batez besteko lan-bizitzan oinarrituta. Nolanahi ere, ebatzi

gabeko prozedura judizialak daude, 24 eta 25. promozioari buruzkoak, eta horiek erabakiko dute erreforma honen zentzua.

Ekintza positiboko neurriak.

Nabarmentzekoak dira, berrikuntza dakarten aldetik, txanda libreko hautaketa-prozeduretarako emakumeen alde ezartzen diren ekintza positiboko neurriak, zenbait egoeratan emakumezko hautagaia gizonezkoaren gainetik hobestea ekarriko baitute, Europako Erkidegoetako jurisprudentziak lege-neurriei, proportzionaltasunari eta arrazoizkotasunari buruz ezartzen dituen eskakizunen kontra jo gabe. Hala bada, lege-mailako arau batean ezartzen da neurri hori. Arrazoizkoa da, mugatu egiten baitu txanda libreko sarbidea, eta diskriminazio egitatezko eta historiko bat arintzeko ez ezik, polizia-zerbitzua eraginkortasunez emateko emakumeen masa kritiko baten eskakizunari erantzuteko ere bada. Proportzionatua ere bada, lehentasuna modu subsidiarioan eta murriztuan aplikatzen delako, hautatutako hautagaiaren eta bazter utzitako hautagaiaren arteko nolabaiteko gaitasun-baliokidetasuna ere bermatuz beti, lehentasuna aplikatzeko orduan. Eta, gainera, salbuespenezko neurria ere bada aldi baterako den aldetik, ez baita aplikatzen jarraituko, emakumeak dena delako kidego, eskala eta kategorian % 33 izatera iritsitakoan. Neurri horren xedea ez da sexuen arteko parekotasuna, baizik eta emakume-kopurua gutxienez masa kritiko jakin batera iristea (% 33).

Emakumeen aldeko ekintza positiborako neurriak, 47. bis artikuluko berriaren bidez arautuak, nabarmentzea merezi dute, emakumeak polizia-kidegoetan eraginkortasunez eta ohiz kanpo txertatzeko ahalegina egiten baitute. Proiektuaren espedientean ageri dira proposamen horren aldeko azterketak eta txostenak, baita emakumeen gaur egungo ordezkapen eskasaren kausak ere. Txosten horiek desberdintasunezko egoera historikoa azaltzen dute, lehenik eskubideen alorrean, eta gero egitateen esparruan. Helburua da egoera hori arintzea, baina ez parekotasuna lortzeko, baizik eta gutxieneko masa kritikoa lortzeko: %35 hain zuzen. Helburu hori lortuko balitz, lehentasuna amaituko litzateke.

Neurri horren bidez, erabaki judizialen iritzia aintzat hartzeko ahalegina egiten da; izan ere, Ertzaintzan sartzeko txanda irekiko eta barne-sustapeneko deialdietan plazen %50 emakumeentzat gordetzea baliogabetu zuten, kuota itxiak, diskriminatzaileak, justifikaziorik gabeak eta lege formal batean oinarritu gabeak zirela ulertuta.

Aldaketaren bidez planteatutako ekintza positiborako neurriak, lege formal baten euskarria bilatzeaz gain, zentzuz justifikatu behar den neurria aurreikusten du, emakumeen sustapenerako planetan oinarritua. Neurri hori ohiz kanpokoa eta aldi baterakoa da, gutxieneko masa kritikoa lortu arte, ez parekotasuna lortu arte; txanda irekiko sarrera-prozesuetan soilik aplikatu daiteke, eta ez dira kuota itxiak finkatzen, baizik eta emakumeen lehentasun soila, gizonen aurretik, plazen gehieneko kopuru batean, emakumeen sustapenerako planak oinarri hartuta. Lehentasun hori aplikatuko da gaitasunak

parekoak direnean, eta parekotasun hori egiaztatzeko, puntuazioen arteko aldeak ez du gainditu behar ehuneko jakin bat.

Baliatutako erresalbuak direla-eta, ulertzen dugu neurria bateragarria izan daitekeela Europar Batasuneko zuzenbidearekin, eta Konstituzioaren 14. eta 23.2 artikuluekin; izan ere, EAEko Justizia Auzitegi Nagusiaren epaietan eskatutako legezketasunaren eta proportzionaltasunaren printzipioak betetzen ditu. Epai horien bidez baliogabetu ziren, hain zuzen, kupo itxiak edota emakumeentzako plazak gordetzea txertatutako hautaketa-deialdiak (EAEko Justizia Auzitegi Nagusiaren 55/2001 epaia, 2011ko urtarrilaren 26koa, eta beste batzuk, esate baterako 2010eko maiatzaren 12koa eta 2010eko urriaren 26koa).

Proposatutako erregulazioa aurreko legealdian Eusko Legebiltzarrean aurkeztu zen proiektuan zegoen bera da, eta Aholku Batzorde Juridikoak aztertu zuen. Batzordeak eman zuen irizpenaren arabera, legegilea gaitasuna zuen Euskal Herriko Poliziaren Kidegoetara sartzerakoan ekintza positiboko neurriak hartzeko. Halaber, neurrien proportzionaltasuna indartzeko oharrak ematen zituen.

Une horretan gobernu-kontseiluak onetsi zuen testuan, Aholku Batzorde Juridikoak bere irizpenean egin zituen ohar eta zehaztapenak jaso zituen eta horixe berreskuratu du orain aurreproiektu honek.

Hautaketari buruzko beste gai batzuk.

Hautaketa-organoen araubidearen oinarrian ezaugarri hauek bete beharko dira: inpartzialtasuna, profesionaltasuna eta espezialitatea, baita gizon eta emakumeen arteko oreka ere. Funtzionarioentzat orokorrean aurreikusitako ezaugarriak dira aipatutako horiek guztiak. Era berean, deialdietako oinarrien arteko lotura egin dadila xedatzen da, eta orobat zehazten da zein kasutan izango den zilegi deialdi bateko lanpostu hutsen kopurua aldatzea edo akatsak zuzentzea, eskabideak aurkezteko beste eperik hasi gabe.

Polizia eta Larrialdietarako Euskal Akademia hautaketa-organo iraunkor gisa eratzen da, eta, gainera, aukera ematen da udaltzaingoan sartzeko hautaketa-prozedurak batera egiteko, toki-administrazioko erakundeek beren borondatez hala eskatzen badiote.

Ekintza positiboko neurriak ezartzen dira emakumeak polizia-kidegoetan sartzeko eta polizian emakumeen kopurua handitzeko, gaur egun kopuru hori urria da-eta. Hala, bada, polizia-kidegoetako emakumeentzako lanbide-sustapeneko planak arautzen dira, kidegoetan sartzean eta lanbide-karreraren berdintasuna bermaturik izan dezaten, dagokiena baino daukaten ordezkariak urriago hori zuzentzeko, eta poliziaren eraginkortasuna handitzeko.

2.2.3.- Sustapena eta lanbide-karrera:

Barne-sustapena eta lanbide-karrerari dagokionez, nobedade garrantzitsuak aurreikusten dira.

Barne-sustapenari dagokionez, barne-sustapeneko prozeduretan parte hartzeko hiru deialdiko muga bertan behera utzi da; izan ere, muga horrek murriztu egiten zuen ibilbide administratiborako eskubidea, baita funtzionarioek probak gainditu bai, baina plazarik lortzen ez zuten kasuetan ere.

Beste neurri batzuk ere ezartzen dira, gizonen eta emakumeen arteko aukeraber dintasuna sustatzearekin zerikusia dutenak, hala nola haurrak edo senitartekoak zaintzeko edo genero-bortizkeriarengatik eta zerbitzu bereziengatik eszedentzian direnek barne-sustapeneko prozeduretan aurkezteko duten aukera. Halaber, amatasun- eta aitatasun-baimenetan eta haurdunaldi-bajetan emandako denbora ere kontuan har dadila xedatzen da, barne-sustapena dela-eta benetan emandako zerbitzuen denbora kalkulatzeko aldera.

Superintendente-kategoria kentzen da, eta, horrela, Ertzaintzaren erantzukizun goreneko postuak betetzea bizkortzen da, lanpostuak betetzeko prozedura arruntan bidez.

Aurrez esandakoaz gain, barne-sustapenean inpaktu gehien izango duen neurria kategoriaz igotzeko urte-kopurua gutxitzea da.

Lanbide-karrera horizontala arautzen da, lanpostua aldatu beharrik gabe garapen profesionalaren mailan aurrera egiteko aukera gisa ulertuta.

Lanbide-karrerako sistemak berarekin batera dakar ezagutza-mekanismo bat ezartzea, kategoria bakoitzean aurreikusitako garapen profesionaleko maila desberdinetara urteetan zehar sartu ahal izateko, eta gaitasun profesionalak egiaztatzearen bitartez. Garapen profesionaleko mailaren arabera jasotzen da ala ez karrera profesionaleko osagarria, eta, hala badagokio, maila horrek lanpostu jakin batzuk betetzeko gaitzen du.

Orain arte adierazitakoaren ondorioz, ordainketa-egitura aldatzen da, karrera profesionaleko osagarria ordainsari osagarrien artean sartzeko.

2.2.4.- Lanpostuak betetzea:

Lanpostuak betetzeari buruz, Ertzaintzan espezialitateen araubidearen erregulazioa nabarmendu behar da, ezagutza zehatzak behar dituzten zereginetarako.

Espezialitate horietan sartzeko, espezializatzeko ikastaro bat egin beharko da, eta titulazio edo ezagutza jakin batzuk eskatu ahal izango dira. Espezializatzeko jarraitzeko konpromisoa dakar berarekin batera, bai eta espezialitatean jarraitzeko gaurkotze-probak egitea ere, hala behar izanez gero.

Halaber, lege honetan, Polizia eta Larrialdietarako Euskal Akademiak eta segurtasun-arloan eskumena duen sailak deialdi bateratuak egiteko aukera jasotzen da; deialdian, espezializazio-ikastaro batean sartzea eta hura gainditzea lotuko da borondatezko zerbitzu eginkizunak berehala ematearekin, hutsik dauden lanpostu espezializatuak.

2.2.5.- Administrazio-egoerak:

EHPLk ez zituen administrazio-egoerak arautzen, zerrendatu eta funtzionarioen legedi orokorrari lotzen zaio EHPLn bertan dauden espezialitateei kalterik egin gabe (bigarren jardueran eta funtzioak gabetzean, batez ere). Hala ere, enplegatu publikoen administrazio-egoeren erregulazioa aldatu egin da EPOE onartu zenetik, eta EHPLko zerrenda zaharkitua gelditu da. Horregatik, proiektuan, administrazio-egoerak banan-banan aipatu beharrean, funtzionarioen erregulazio orokorrari lotzen zaio zuzenean.

Oraindik ere, berezitasunak arautzearen alde egiten da, eta beraz funtzioen gabetze-egoera zati batean aldatzen da, baina aldaketarik garrantzitsuenak dira polizia-jardunari buruzko egokitzapenak, adinaren ondorioz egiten direnak, edo funtzio polizialaren berezko gaitasunak gerora galdu izatearen ondorioz, eta betiere funtzionarioen osasuna babesteko eskubidearekin bat etorrira.

Aurreko araudian, bigarren jardueraren egoeraren profilek eragozten zuten administrazioek praktikan onartzea, pertsona-kopurua handia izanez gero. Lausoki ibiltzen zen batera eta bestera, bi aukera hauen artean: langile horiek aldatzea haiek betetzeko moduko postuetara... edota aurretiko erretiro moduko bat, inoiz zehaztu ez zen adinera iristean, finantza-arazo handiak eta pertsonala berritzeko zailtasunak sortuz.

Horregatik, proposatutako erregulazioak administrazio-egoera hau argiago zehazten du: kontua da ahalmen eta gaitasun murriztuak dituzten langileak, baina polizia-lanbidetari dagozkion funtsezko eginkizunak betetzeko ezgaitasunik ez dutenak, eta, horrenbestez, ezgaitasunagatik erretiroa hartuko ez dutenak, haien egoerarako egoki diren postuetara aldatzea.

Hortaz, araudi berrian, administrazioaren eskura dagoen funtzionarioaren figura desagertzen da, eta ez du jada zentzurik adinagatik egoera horretara automatikoki pasatzea.

Horrek ez du eragozten funtzionario adindu bat, ahalmenak murriztuta dituelako poliziarri dagozkion eginkizun guztiak normaltasunez bete ezin dituenak, bigarren jarduerara pasatzea; edota zerbitzu aktiboaren egokitzapena aurreikustea adinagatik, hau da, zerbitzuan urte jakin batzuk eman dituzten langileei beste funtzio edo eginkizun batzuk ematea, esate baterako, bereziki neketsuak edo arriskutsuak diren eginkizun jakin batzuk egitetik salbustea.

Adina dela-eta egokitutako zerbitzu aktiboa arautzen da. Honetan datza adina dela-eta egokitutako zerbitzu aktiboa: zerbitzu aktiboan jarraitzean, agentearen egoerarako egokiak diren eginkizunak eginez; gau-txandarik gabeko lanaldi-

erregimena izatean; eta adina dela-eta zerbitzua emateko baldintzen bestelako aldaketak egitean; esaterako, urteko lanaldia gutxitzean.

Ertzaintzaren kasuan, langileek 56 urtetik aurrera eskatu dezakete murrizketa, eta borondatez erretiro aurreratua hartzeko konpromisoa dakar (atzerapena izan dezake bere oinarri arautzailearen % 100eko balioa duen pentsioa eskuratzeko baldintzak ez badira betetzen).

Beste polizia-zentro batzuetako lanpostuetara atxikiz, agenteak beste polizia-zentro batzuetara mugitu daitezke. Horretarako, zentroa gehienez ere, agentea destinatua zegoen unitateko lurralde-mugapenaren inguruan egon beharko da, eta bete zuen aurreko lanpostuan izendatua izan zen hornikuntza-baldintza berberak izango ditu.

Atxiki ezin bada, destinorik gabe egongo da aldi batean, administrazioaren esanetara, destinoa esleitu edo lanpostua egokitu arte. Udaltzaingoaren kasuan, adina dela-eta egokitutako zerbitzua ezarri ahalko da, zerbitzu poliziala ematen jarraituko dela bermatuz gero; udalak ezarriko du adina, baina ezingo da izan hirurogei urtetik beherakoa.

Lan polizial guztiak normaltasunez betetzeko gaitasun psikofisiko nahikorik ez dutelako bigarren jardueran aritzen diren polizien administrazio-egoerari buruz ere arau berriak ezartzen dira; hala, bada, haien arabera, funtzionarioek beren benetako gaitasunetara egokitutako lanpostuak edo funtzioak bete beharko dituzte, aurreko araudietan ez bezala, hura premisa honetatik abiatzen baitzen: bigarren jardueran aritzen zirenek oinarritzko ordainsariak kobratzen zituzten, lanpostu bat betetzeko edo jarduera polizialak betetzeko deitzen zieten arte. Lege honetan, berriz, egoera administratibo horretara igarotzen diren funtzionarioek lan egiten jarraituko dute, hala aurreko lanpostuan —bigarren jardueran aritu ahal izanez gero—, nola bete dezaketen beste lanpostu batean; eta birkokapena berehala egin ezean, agentearen lanpostua bere premietara egokitzen da aldi baterako.

Behin-behineko eginkizunen etenaldiari dagokionez, bi zehaztapen egiten dira: bata, behin-behineko etenaldian emandako denbora etenaldi irmoan kontuan hartzeari buruzkoa; bestea, horrekin lotua, behin-behineko etenaldia irmo bilakatuz gero, behin behineko etenaldian jasotako dirua itzuli beharri buruzkoa.

2.2.6.- Gizarte-babesa:

Kapitulu berria sartzen da, Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziaren kidegoen babes sozialari buruzkoa, oinarritzkoa zein osagarria izan, eta bereziki kontuan hartuta administrazioek langileen baldintza psikofisikoak, laneko osasuna eta laneko arriskuen prebentzioa zaintzeko obligazioa dutela.

Lan-arriskuen prebentzioaren arloan, eztabaida sortu da Lan Arriskuen Prebentzioari buruzko Legea poliziarri zein neurritan aplika dakioken erabakitzerakoan. Izan ere, Legearen 3.2 artikulua hau dio: "Lege hau ez da

aplikatuko jarduera batzuetan, jarduera horien berezitasunek lege hau aplikatzea eragozten duten ondoko eginkizun publikoen esparruan: polizia, segurtasuna eta aduana-gordekina, babes zibileko zerbitzu operatiboak eta forentseen ikuskatzea, arrisku larriko egoeretan, hondamen-egoeretan eta zoritxar publikoko egoeretan".

Hala ere, Lan Arriskuen Prebentzioari buruzko Legeak baztertutako jardueren prebentzio-jarduketan "inspirazio-iturri" izango dela dio, jarduerak baztertu arren enpresak berak prebentzio-neurriak ezarri beharko baititu poliziek aurre egin behar izaten dieten arriskuak gutxitzeko, eta ekintzok Lan Arriskuen Prebentzioari buruzko Legea izan beharko dute oinarri.

Gaia Europako Erkidegoetako Justizia Auzitegiak aztertu zuen, eta ondorioz, Estatuko administrazioak bi Errege Dekretuetan arautu zuen Estatuko Segurtasun Indar eta Kidegoen eremuetan dauden lan-arriskuen prebentzioa. Ertzaintzari dagokionez, lan-arriskuen prebentzioari buruzko araubidea lan-baldintzak arautzeko akordioetan sartu zen. Udaltzaingoari dagokionez, ez da egin araudiaren egokitzapen orokorrik. Horregatik, egun salaketak daude arlo horretan, lan-arriskuen prebentzioari buruzko araudi europarra ez betetzeagatik.

Bestalde, proiektuak nahitaez eduki behar ditu lanean edo lanaren ondorioz sortutako gaixotasunak edo laneko istripuak sortutako lesioak edo patologiak direla-eta izaten diren aldi baterako ezintasunen kasuetarako, babes sozial osagarriko mekanismoak.

Egun, beren jardunean edo zereginak betetzean edo Euskal Herriko polizia-kidegoetako funtzionarioa izateagatik istripuz edo indarkeriaz gertatutako heriotza kasuetako edo bere zereginak betetzeak eragindako ezgaitasun kasuetako eskubide osagarrien erregulazioa zerbitzu-egintzaren deklarazioa deitutakoarekin lotzen da. Deklarazioaren erregulazioak ohorezko sarien araubidea eta langileen gizarte-babesaren berezko araubidearekin nahasten du.

1992ko erregulazioaren asmoa zen 1982ko euskal poliziaren erregelamenduaren aurreko erregulazioak ekarri zituen arazoak desagerraraztea, 1982ko araudiak arau-kidego desberdinduentzako diseinatutako kontzeptuen arteko nahasketa eragiten zuen: lan-istripua ertzainei aplika dakiekeen gizarte-segurantzaren araubidean ezarritako kontingentzia gisa eta Estatuko klase pasiboen araubidearen balio bera duen kontingentzia zerbitzu-egintzako kontzeptuari lotuta. Nahasketa ekiditeko, EHPLk zerbitzu-egintzaren kontzeptua aparteko merituekin lotzen zuen, zerbitzuan zehar gertatutako heriotzaren kasuan izan ezik. 2004 eta 2012ko erregelamendugarapenek, batetik, zerbitzu-egintzaren deklarazioan emateko prozedura eta dakartzan ondorio ekonomikoak jaso zituzten, eta bestetik, zerbitzu-egintzaren deklarazioari lotutako edo lotu gabeko kondekorazioen zerrenda jaso zuen.

Hala ere, zerbitzu-egintza deklaratzeko balizkoak ez dira beti bat etorri beharko agentearen merezimenduzko jarduera positiboekin. Erreformaren xedea kondekorazioaren araubideari bere garrantzia ematea da eta funtzionarioaren

heriotza edo ezgaitasun iraunkorra gertatu den kasuetan funtzionarioaren eredugarritasun-azterketa bereiztea kontingentzia horren ondorio ekonomiko eta juridikoetatik, modu objektiboan har daitezzen.

2.2.7.- Gizarte-aintzatespena:

Aurreneko aldiz jasotzen da kondekorazioak eta ohorezko sariak emateko erregimena, zerbitzu-egintzan hildako funtzionarioak edo erretiroa hartu dutenak goiko kategoriara ondorio ekonomikorik gabe eta ohore gisa igarotzeko aukera jasoz.

2.2.8.- Diziplina-araubidea:

Diziplina-araubidean sartutako aldaketek kontuan hartzen dituzte arau-hauste berriak, EHPLtik kanpoko beste arau batzuetan jada aintzat hartzen zirenak: arau-hauste arin, larri eta oso larriengatik jar daitezkeen zigorren doximetria aldatu; preskripzioaren eta iraungitzearen araubidea; eta zigorrak betetzeko modua arautu, malgutasuna bideratuz.

Diziplina-araubiderako aurreikusitako aldaketak honako hauek dira:

Behin eta berriz egindako sexu-jazarpen eta lan-jazarpenaren arloan falta oso astun berriak eta polizia-bideokameren erabilera-araubideari buruzko arau-hausteak sartzen dira.

Ezarriko diren zehapenak arindu dira. Diziplinako faltetan zigorra murriztu da funtzioen etenaldiari dagokionez, uste baita zorrotasuna handiagoak ez dakarrela beti arauaren disuasio- edo prebentzio-efektuen efikazia edo eraginkortasun handiagorik. Aldaketa horrek ez du inolako arazorik sortzen lege aldetik, eta diziplina-araubidea jartzen du gure inguru juridikoko araubide berrien parean.

Zehapena graduatzeko irizpideen artean, curriculum profesionala zirkunstantzia aringarritzat jotzen da, berriz egin izanaren kontzeptua larrigarria izatea mugatzen da, eta, delitua edo falta penala dela eta izandako falten kasuan, berariaz baloratzen da ezarritako zigorraren zenbatekoa edo entitatea epai irmoaren arabera, bai eta delituzko jokabidea eginkizun polizialekin duen harremana ere.

Espedientepean dauden pertsonen bermeak indartzen dira, deklarazioak ez egiteko dituzten eskubideei dagokionez, bai eta beren buruaren kontra ez egiteko, beren burua erruduntzat ez jotzeko eta errugabetasun-presuntzioa izateko, bai eta prozeduraren izapideen egoeraren berri izateko eskubideei dagokienez ere. Defentsa-eskubideari dagokionez, espedientatutako pertsonen jarduneko abokatu edo prestakuntza egokia duen konfiantzazko kidego polizialeko funtzionario baten aholkularitza eta laguntza izateko aukera bermatzen zaie, eta ezartzen da, baita ere, agintariek erraztasunak emango

dizkietela izendatutako funtzionarioei espedientatutako pertsonaren agerraldi pertsonaletan egon daitezen.

Prozedura iraungitzeko araubidearen eta epea arautu da, eta horrek arindu egiten du EAEko Justizia Auzitegi Nagusiak diziplina-araubideko agindu bat baliogabetu izana, HALGAILen azken aldaketan ostean.

Orobat, falta eta zehapen oso larrien preskripzio-epea gutxitzen da 6 urtetik 3ra; aitzitik, legeak preskribatzeko epea zabaldu egiten da, hilabete 1etik 3 hilabetera.

Zehapenen bete beharra jasotzen da, bai eta zehapena eten beharreko edo baldintzapean kentzeko kasuak ere, horrela jokatzeke motiboak daudenean.

Zehatutako pertsonari albait kalterik txikiena eginda beteko dira zehapenak; horrela, bada, aurreikusten da zehapena betetzeko zatiketaren alde egiteko aukera, bai eta, eginkizunak etenez gero, zehapena baldintzapean kentzeko aukera emango zaio —eskaten duenetik 15 egun igaro baino lehen—, baldin eta zehatutako pertsonak zehapena betetzeko hautazko neurri gisa hartzen badu lanalditik kanpo lan egitea, soldatarik edo inolako konpentsaziorik gabe, jarritako zehapen-aldia bitartean.

Zigorak gauzatzeari eta baldintzapean barkatzeari buruzko alderdi jakin batzuk arautzeak ez du arazorik planteatzen, ezta behin-behineko gabetzean jasotako zenbatekoak, behin betiko gabetze bihurtuz gero, itzuli behar izateak ere; eta behin betiko gabetzea betetzeko behin-behineko gabetzean egindako denbora kontuan hartzeak ere ez du arazorik sortzen.

2.2.9.- Ertzaintzaren egitura eta funtzionamendua:

Ertzaintzaren lanbide-egiturari dagokionez, nabarmentzekoa da superintendentearen kategoria desagertzea eta polizia judizialaren lana aldaketa normatiboetara eta Ertzaintzaren egungo egiturara egokitzea.

Superintendentearen kategoria kentzeko lanbide-egitura tontorrean nola geratzen den erabakia hartu da kontuan, hau da, komisariorde, komisario, intendente eta superintendentearen kategoriak unibertsitateko titulu akademiko bera duten pertsonentzat zabalik geratzen dira.

Superintendente-lanpostua bereizi arren, jatorri-taldeko prestakuntza akademikoa egiaztatzearekin nahikoa izango da, ez da beste prestakuntza akademikorik egiaztatu behar, izan ere, jatorri-taldeak barne-sustapenaren sistema eratu ohi du.

Bestalde, benetan zuzendaritza-izaera duten lanpostuak direla hartu behar da kontuan, eta izendapen askeak berez duen konfiantza eskatzen dute eta betetako lanpostuarekin loturarik gabeko kategoria finkatzeak lanpostu horiek beteko dituzten hautagaien nolabaiteko esklerosia ekarriko luke.

2.2.10.- Udaltzaingoak:

Udaltzaingoari dagokionez, eraberritze honek homologagarriak diren lanbide-egiturak sendotzen ditu, eta, aldi berean, udal bakoitzari uzten dio bere beharrian eta berezitasunei egokitutako antolakuntza-konponbideak aurkitzen.

Hala, bada, hainbat neurri ezartzen dira lehendik zeuden zenbait errealitateri erantzun juridikoa emateko; esaterako: udaltzaingoak udalerritik kanpo jardun ahal izatea, udal agintariak babesteko eginkizunak bete behar dituztenean; udaltzaingoko kideen artean destinoa trukatzeko aukera; mugikortasun-agentek ezartzea edo mekanismoak ezartzea udaltzaingoko bitarteko funtzionarioak presta daitezten.

Nabarmentzekoa da beste hau ere: udaltzaingoko kidegoetako lanbide-egitura jasotzen du legeak, Ertzaintzako bezalatsu. Bereziki, udaltzaingoko kidegoetako buruei dagozkien kategoriak zehazten dira, biztanleriaren arabera edo kidegoa osatzen duten pertsonen kopuruaren arabera. Hala, lege-proiektuak araututakoaren arabera, eskala berrietan sailkatzen dira udaltzaingoko funtzionarioak, eta udaltzaingoko buruei dagozkien lanpostuak egokitzen dira.

Alde batetik, kategoriak eta eskalak Ertzaintzakoekin bateratzen dira; horrek ez du esan nahi tokiko kidego guztietan eskala eta kategoria guztiak izan behar dituztenik.

Proiektuak adierazten du kidegoen buru izateko behar den kategoria, udalerrietako biztanleen edota kidegoko funtzionarioen kopuruaren arabera.

Horrenbestez bermatzen da kasu guztietan gutxieneko mailakatzeko hierarkikoa izatea, eta egungo egoera zuzentzen da; izan ere, hiriburuak alde batera utzita, gainerako udalerrietako profesionalen egituraren eta buruzagitzen gailurra da, gehienez ere, C-1 sailkapen-taldeko ofizial bat.

Bestalde, Jaurlaritzari gaitasuna ematen dio, udaltzaingo-kidegoetako kategorien arteko proportzionaltasun-irizpideak ezar ditzan, udalerrri bakoitzeko biztanle-kopurua eta ezaugarriak kontuan hartuta.

Udalerriek hiru urteko epea daukate, buruzagitza-postuak Legearen arabera egokitzeko. Egokitze hori gauzatu ondoren, aldatutako buruzagitza-postuetan zeudenak birkalifikatutako lanpostuari dagokion kategorian sartuko dira, baldin eta azken bost urteetan postu horretan aritu badira, kategoriari dagokion titulua badute (edo EHPLren 59.2 artikuluan aurreikusitakoari jarraikiz deitutako gaitze-ikastaroak, edota egokitzapenaren aurretik deituko direnak) eta Euskal Herriko Polizia eta Larrialdi Ikastegiak emandako lanbide-akreditaziorako ikastaro teoriko praktikoa gainditzen badute. Ikastaro horretan kontuan hartuko dira lan-esperientzia, espezializazio- eta gaitze-ikastaroak, eta alde aurretik eskatutako ezaupideak.

Birsailkatutako lanpostuari dagokion kategorian sartzeko baldintza horiek betetzen ez badituzte, lanpostuan jarraituko dute, izendatu zizuteneko baldintzetan, eta betetako lanpostuari esleitutako ordainsariak jasoko dituzte.

Bestalde, xedapen gehigarri berrian, zerbitzu aktiboan ari diren udaltzaingokidegoetako kideen arteko lanpostu-trukea arautzen da.

Aguazilei aplikatuko zaien araubide juridikoa arautzen da: udaltzaingorik gabeko udalerrietan, aguazil plazak sor daitezke (5 arte); estatutu jakin bat, lege definitutako funtzioak eta agintaritzaren agente izatearen aitortzea izango dute, eta Polizia eta Larrialdi Ikastegiko prestakuntza beharko dute. Legean aurreikusten da egungo aguazilak edo jagoleak figura horretan integratzea, eta, udalerrian udaltzaingoa sortzea erabakiz gero, kidego horretan integratzea.

Mugikortasun-agentek Estatuko segurtasun indar eta kidegoei buruzko lege organikoan adierazitako moduan jasotzen dira, trafikoa zaintzeko kidegoak izan ditzakete; horrenbestez bideratzen da udaltzainak segurtasunaren alorreko eginkizunetan aritzea, batez ere.

Udaltzaingoaren bitarteko funtzionarioei dagokienez, aldiz, hala izendatuko dituzten pertsonak prestatzeko mekanismoak dauzka proiektuak Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiak prestatutako pertsonen osatutako enplegu-poltsa sortuz.

Udaltzaingoaren bitarteko funtzionarioaren figura beti egon da, eztabaida sortu arren. Egun, 300 bitarteko funtzionario baino gehiago daude udaltzaingoan, asko karrerako funtzionarioen ordezkioak dira, eta beste batzuk aldi baterako zereginak edo premiazko une jakinetan egin beharreko lanak burutzen dituzte. Orain dela urte gutxi, Auzitegi Gorenak bitarteko funtzionarioei buruzko epai irmoa eman zuen, eta hala egin zuen EAEANek ere. Hala ere, EAEko Auzitegi Nagusiak orain dela gutxi emandako epairen batek aurrez emandako epaiak aldatzen ditu, uste baitu EHPL eta EFPLko xedapenen gainetik EPOEk eratutako Estatuko oinarrizko legearen irizpidea dagoela. Hortaz, EPOEren arabera, aginpideaz baliatu beharra dakarten lanpostuak karrerako funtzionarioei gordeko zaizkie, eta beraz, bere iritziz, udaltzaingoan bitarteko funtzionarioen izendapena ezgaituko du. Tesi hori, bere irmotasunagatik, zalantzan jarri behar da, izan ere, EPOEk ez baitio alderdi honetan ekarpen berririk egiten TAOLk Udaltzaingoan bitarteko funtzionarioak izendatzeko aukerari buruz esaten zionari, Auzitegi Gorenak doktrina ezarri baino askoz ere lehenago. Gainontzean, EAEANren argudioarekin bat, aholkularitza juridiko, kontularitza-kudeaketa edo diruzaintza eta bestelako zereginetan bitartekotza guztiak debekatuko lituzke, toki-eremuan, zein autonomia-erkidegoetan edo Estatuan. Horrek, 360 udaltzaingok berehala lana utzi beharra ez ezik, milaka eta milaka bitarteko funtzionario ere lanik gabe geratuko lirake, herri-administrazioak geldiaraztea eraginez lanpostu horietarako karrerako funtzionarioak izendatu arte.

2.2.11.- Legegintza-eskuordetzarako gaikuntza:

Legegintza-eskuordetza Gobernuaren Legeko 52.2 artikuluan agertzen da. Artikulu horretan, Konstituzioaren 82. artikuluan bezala, ezartzen da Eusko Legebiltzarrak gobernuan eskuordetu dezakeela lege-mailako arauak (legegintzako dekretuak deritzenak) emateko ahalmena, arlo batzuetan izan ezik. Baina arlo horiek ez dira aurreproiektu honetan agertzen.

Legegintza-eskuordetzako bi modalitate daude: (i) oinarri-legearen bidez gauzatu beharko da, eskuordetze horren helburua testu artikuludunak sortzea bada; (ii) lege arruntaren bidez gauzatu beharko da, ordea, helburua zenbait lege-testu bat egitea bada. Bat egiteko lanak eduki berritzailea ere ematen du, edozelan ere, bateratutako manuen interpretazio sistematikoari buruzko gogoeta sakona baitakar, batez ere eskuordetzak bat egin behar diren lege-testuetako hutsuneak arautu, argitu eta harmonizatzeko ahalmena barne hartzen badu.

Horretarako, batu behar diren lege-testuen arazketa teknikoa egin behar da manuak argitu, bateratu eta aurreko erregulazioan antzemandako desadostasunak eta antinomiak kenduz, Testu Bategin koherente eta sistematikoa lortze aldera» (166/2007 KAE, uztailaren 4koa, 8 OJ).

Ordezkaritzaren premisa testu bategina sortzeko batu beharrezko hainbat lege-testu zeudela izan zen. Horregatik, sarritan bat-egiteak ez duela zentzurik uste izan da, aurreko arauaren aldaketa hutsa denean, bertako manuak aldatutako arauan sartzen baitira.

Hala ere, esku artean dugun kasua, arau berberaren bosgarren aldaketa da. Aurreko aldaketetako batzuk oinarri-legeetan edo EHPL baino eduki gehiago duten legeetan jasotako aldaketak dira, esaterako Euskadiko Segurtasun Publikoaren Sistema Antolatzeako Legean. 1992an onetsitako arauak ez du gaur indarrean dagoen legearen antzik, ezta aldaketa honetatik sortuko den legearen antzik ere. Beraz, legegintza-eskuordetzarako oinarriak ematen direla uste da.

Halaber, egokia dela dirudi legegintza-eskuordetze zabalena (arautu, argitu eta bateratzeko lanak barne hartzen dituena) aukeratzea, testuan lege-arauak sartzeko Eusko Jaurlaritzak Eusko Legebiltzarrari emandako baimenari lotutakoa aukeratu beharrean. Hala, beharrezkoak diren artikulak, kapituluak eta xedapenak bakarrik aipatuko dira berriz banan-banan eta zenbaki berriak jarri zaizkien bat egindako legeen barne bidaltze-oharrak egokituko dira.

Ohar hau zentzuzkoa da batez ere indarrean dagoen legearen euskarazko bertsiorako, beste batzuetan Aholku Batzorde Juridikoak esan bezala, euskararen lexiko arrunt, tekniko eta juridikoan gertatu den eguneratze-prozesuaren ondorioz sortu diren beharrak egiaztatzerakoan, batzuetan iragan sasoietan emandako arauen terminologia homogeneousatzea komeni da, azken emaitzan egon daitezkeen inkoherentziak zuzentzeko, segurtasun juridikoaren printzipioan eragin kaltegarria eduki baitezakete.

Gainerakoan, gaitzeko klausulak eskakizun guztiak betetzen ditu: a) Eusko Jaurlaritzari ematen zaio espresuki; b) gai zehatzerako ematen zaio

(legegintza-eskuordetzetik kanpo utzi gabe) eta erabiltzeko epea berriaz adierazten da, eta c) legegintza-eskuordetzearen xedea eta irismena zehatz-mehatz mugatzen da.

2.3.- LEGEGINTZA-TEKNIKA

Proiektuak errespetatzen ditu Gobernu Kontseiluak xedapen orokorrak egiteko emandako zuzentarauak; halaber, gaingiroki errespetatzen ditu 1994ko martxoaren 18an lehendakariak emandako jarraibideak, hizkuntza sexista arauetatik, administrazio-dokumentuetatik eta Euskal Autonomia Erkidegoko instituzio-ekintzari buruzko informazio eta hedapenerako dokumentuetatik desagerrarazteko.

Zuzentarau horiei jarraikiz, aldaketa egitea helburu duen arauaren izenburuan zehaztu behar da izaera hori. Halaber, ez da agertuko aldatutako lege edo dekretuen datarik eta zenbakirik, ezta aldatutako artikulua, atal edo kapitulurik ere. Berrikuntzaren bat duten xedapen guztiak artikulua bereizi batean adierazi behar dira, eta ezin dira lehendik zegoen artikulua baten atal izan.

Oro har, zerbait aldatzeko arauetan erregulazio-estiloa erabiliko da (aldatzeko xedapenak beste era batez idaztea), kasu hauetan izan ezik: hitz bat edo beste ordezkatzeko, esamolde berdinak behin eta berriz aldatzeko, zenbatekoak eta antzekoak aldatzeko; horrelakoetan, aldaketa-estiloa erabiliko baita, hau da, hitz batzuk ordezkatzeko dira baina ez da berriz beste era batez idatziko.

Esparru-testua eta erregulazio-testua egoki bereizi behar dira. Esparru-testua: aldatzen den zatiari buruzko datuak zehaztuko ditu, argi eta garbi (aldatzen diren arauak, kapituluak, artikulua, paragrafoak eta hizkiak) eta aldaketa-mota jakinaraziko du (idatzaldi berria, gehitzea, indargabetzea). Erregulazio-testua: komatxo artean idatziko da, paragrafo bereizi batean, begi hutsez ikus dadin araudi berria zein den; gainera, baliabide tipografikoak erabiliko dira, esate baterako marjinetan koskak edota letra-mota desberdina.

Artikulu berriak gehitu behar direnean, lehengo artikuluen zenbakiei eutsiko zaie, beste xedapen batzuetan haiei buruz egin daitezkeen aipamenetan nahaspilarik ez sortzeko. Gehitzen diren artikuluei jarriko zaie aurreko artikuluen zenbakia, eta, zenbaki horren ondoren, hurrenkeraren arabera legokiekeen adberbio numeral latinoak (bis, ter, quater eta abar). Aldatzen den arauak dituen artikulua-kopurua eta artikulua berriek arau horretan izango duten lekua kontuan hartu gabe aplikatuko da arau hau. Artikulu bakarreko xedapenetan zerbait gehitu beharra dagoenean ere, berdin jokatuko da.

Vitoria-Gasteiz, 2015eko uztailaren 8a.

Eugenio Artetxe Palomar
Araubide Juridikoaren, Zerbitzuen eta Hauteskunde Prozesuen zuzendaria